Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2928

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 3koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena, Espainiako Metrologia Zentroa egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakunde izendatzen duena.

01-OV-1000-CEM

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Espainiako Metrologia Zentroak ongi gauzatu ditu orain artean tresna jakin batzuen aldizkako egiaztapenak eta konpondu ondorengo egiaztapenak, eta egiaztapen horien txostenak ere eman ditu, bakoitzari dagozkion emaitzen berri emanez.

Bigarrena.– Erakunde eskatzaileak, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakunde izendatzeko, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak izendatzeko azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentaraua argitaratu duen Industriako Idazkaritza Nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Horretarako, ENACen OC-I/172 egiaztapen-ziurtagiria aurkeztu da, 2010eko abenduaren 3ko eranskin teknikoarekin batera (2. berrikuspena), eta, horrenbestez, bidezkoa da eskatutako izendapena gauzatzea, behin betiko.

Hirugarrena.– Konponketa edo aldaketaren ondorengo egiaztapeneko eta aldizkako egiaztapeneko faseetan honako tresna eta/edo neurketa-sistema hauen kontrol metrologikoa gauzatzeko baliabide tekniko eta giza baliabide egoki guztiak ditu eskura Espainiako Metrologia Zentroak:

Etilometroak.

Zinemometroak.

Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta zaratadosimetroak.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, beharrezkoa izango da honako hauek kontuan hartzea:

OINARRI JURIDIKOAK

1.– EAEn kontrol metrologikoa gauzatzeko bitartekoak ezartzen dituen 38/2001 Dekretuaren 11. artikuluak zehazten duenez, industria-arloko erakunde eskudunak egiaztapen metrologikoak egiteko erakundeak gaitu ahal izango ditu konponketaren edo

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2928

RESOLUCIÓN de 3 de marzo de 2011, de la Directora de Administración y Seguridad Industrial, por la que se designa al Centro Español de Metrología como organismo autorizado de verificación metrológica.

01-OV-1000-CEM

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El Centro Español de Metrología viene realizando satisfactoriamente las verificaciones periódicas y después de reparación de determinados instrumentos y emitiendo los informes preceptivos con el resultado de los mismos.

Segundo.– Para la designación como organismo autorizado de verificación metrológica, la entidad solicitante deberá cumplir con los requisitos establecidos por la Resolución de 29 de noviembre de 2007, de la Secretaria General de Industria, por la que se publica la Directriz 1/2007, de 26 de noviembre, para la designación de organismos autorizados de verificación metrológica. A tal efecto, se ha presentado certificado de acreditación, OC-I/172, emitido por ENAC, acompañado del anexo técnico Rev. 2 de fecha 3 de diciembre de 2010, por lo que procede efectuar la designación solicitada con carácter definitivo.

Tercero.– El Centro Español de Metrología dispone de los medios técnicos y humanos adecuados para la ejecución del control metrológico en sus fases de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica de los siguientes instrumentos y/o sistemas de medida:

Etilómetros.

Cinemómetros.

Sonómetros, calibradores acústicos y dosímetros de ruido.

Para la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

1.– El artículo 11 del Decreto 38/2001, por el que se establecen los medios para la ejecución del control metrológico en la CAPV, especifica que el órgano competente en materia de industria podrá habilitar a entidades de verificación metrológica para el

aldaketaren ondorengo egiaztapenak eta aldizkako egiaztapenak egiteko.

2.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren (2009-09-24ko EHAA) 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza da ebazpen hau emateko organo eskuduna.

3.– Neurgailuen kontrol metrologikoa arautzen duen oinarrizko legeria honako hauek osatzen dute: metrologiari buruzko 3/1985 Legeak (ekainaren 28ko 1296/1986 Legegintzako Errege Dekretuak aldatu zuen), abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, neurketa-tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuak, eta aipatutako 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenak.

4.– ITC/2845/2007 Aginduak, irailaren 25ekoak, tresnak jardunean dauden fasean Estatuak soinu entzungarria neurtzeko tresnen gainean eta kalibragailu akustikoen gainean gauzatu beharreko kontrol metrologikoa arautzen du, eta agindu horren IV. eta V. eranskinetan, entseguak, entseguak gauzatzeko modua eta fase eta tresna bakoitzerako baimendutako gehieneko erroreak zehazten dira.

5.– 2001eko apirilaren 19ko Agindua (2011-05-23ko EHAA), Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, soinu entzungarriaren mailak neurtzeko tresnen gaineko kontrol metrologikoa egiteko prozedurak ezartzen dituena.

6.– ITC/3123/2010 Agindua, azaroaren 26koa, motor-ibilgailuen zirkulazio-abiadura neurtzeko tresnen gainean Estatuak gauzatu beharreko kontrol metrologikoa arautzen duena.

7.– ITC/3707/2006 Agindua, azaroaren 22koa, botatako arnasaren alkohol-kontzentrazioa neurtzeko tresnen gainean Estatuak gauzatu beharreko kontrol metrologikoa arautzen duena.

Adierazitako legezko aginduak eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenak aztertu ondoren, eta Industria Zerbitzuko buruak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Espainiako Metrologia Zentroa izendatzea honako jardun-eremu hauetan egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakunde:

Etilometroak.

Zinemometroak.

Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta zarata-dosimetroak.

desempeño de las funciones de verificación después de reparación o modificación y de verificación periódica.

2.– La Dirección de Administración y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución en virtud de los establecido en el artículo 14 del Decreto 514/2009, de 22 de septiembre (BOPV 24-09-2009), por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

3.– La legislación básica reguladora del control metrológico de los instrumentos de medida está constituida por la Ley 3/1985, de Metrología, modificada por Real Decreto Legislativo 1296/1986, de 28 de junio, Ley 13/1996, de 30 de diciembre y Ley 66/1997, de 30 de diciembre, el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, por el que se regula el control metrológico del Estado sobre instrumentos de medida y la citada Resolución de 29 de noviembre de 2007.

4.– La Orden ITC/2845/2007, de 25 de septiembre, por la que se regula el control metrológico del Estado en la fase de instrumentos en servicio sobre los instrumentos destinados a la medición de sonido audible y de los calibradores sonoros, especifica en los anexos IV y V los ensayos, su ejecución y los errores máximos permitidos para las distintas fases e instrumentos.

5.– Orden de 19 de abril de 2001 (BOPV 23-05-2011), del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se establecen los procedimientos para el control metológico sobre los instrumentos destinados a medir niveles de sonido audible.

6.– La Orden ITC/3123/2010, de 26 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado de los instrumentos destinados a medir la velocidad de circulación de vehículos a motor.

7.– La Orden ITC/3707/2006, de 22 de noviembre, por la que se regula el control metrológico del Estado de los instrumentos destinados a medir la concentración de alcohol en el aire espirado.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación, y a propuesta del Jefe de Servicio de Industria,

RESUELVO:

1.– Designar al Centro Español de Metrología como organismo autorizado de verificación metrológica en los siguientes campos de actuación:

Etilómetros.

Cinemómetros.

Sonómetros, calibradores acústicos y dosímetros de ruido.

2.– Emandako baimenari honako baldintza hauek jartzea:

Jardun-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko tresnak biltzen ditu.

Tresnak entseguak gainditzen dituenean, erakundeak betetako egiaztapenaren etiketa jarriko dio. Tresnak entseguak gainditzen ez baditu «zerbitzuz kanpo dagoen tresna» inskripzioa duen etiketa gorria jarriko dio erakundeak. Hori guztia uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuaren I. eranskinari jarraiki, eta egiaztapena gainditu ez duen tresnari dagokion Lurralde Ordezkaritzari lehenbailehen jakinarazita.

Dagokion egiaztapena egin ondoren, Espainiako Metrologia Zentroak tresna zigilatuko du zigiluen bitartez edo, ahal bada eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsaskor autosuntsigarrien bitartez.

Berunezko zigiluak edo antzekoak ez dira inoiz erabiliko; zigiluak, nolanahi ere, jardueraren girorako egokiak eta iraunkorrak izango dira. Espainiako Metrologia Zentroaren (CEM) eta Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza honen gidei eta gomendioei jarraitu beharko zaie.


Kasu guztietan, zigiluek honako inskripzio hauek izango dituzte:

a) Zigilu normala:


Aurrealdea
Anverso



Atzealdea
Reverso



b) Zigilu enbutitua:



2.– Imponer las siguientes condiciones a la autorización que se concede:

El ámbito de actuación comprende los instrumentos existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Cuando el instrumento supere los ensayos, la entidad le adherirá la etiqueta de verificación cumplimentada. Caso de no superación, le adherirá la etiqueta roja con la inscripción de «Instrumento fuera de servicio». Todo ello de acuerdo al anexo I del RD 889/2006, de 21 de julio, y con la notificación inmediata a la Delegación Territorial donde radique el instrumento que no haya superado la verificación.

Efectuada la verificación de que se trate, El Centro Español de Metrología precintará el instrumento mediante precintos o, si ello es posible y se garantiza la inviolabilidad, mediante etiquetas adhesivas autodestructibles.

En ningún caso, se utilizarán precintos de plomo o similar, debiendo ser aptos y duraderos al ambiente de exposición de la actividad. Se deberán seguir las guías y recomendaciones provenientes del CEM y de esta Dirección de Admón. y Seguridad Industrial.


En todos los casos los precintos llevarán las siguientes inscripciones:

a) Precinto normal:

b) Precinto embutido:

c) Plastikozko zigilua:

Aurrealdea
Anverso



«XX» egiaztapena egin den urtearen azken bi digituei dagokie.

3.– Espainiako Metrologia Zentroak urtero Zuzendaritzari jakinaraziko dizkio baimendutako entseguentzat ezarritako tarifak.

4.– EAEn baimenduta dauden erakundeen erregistroari dagokionez, Espainiako Metrologia Zentroari 01-OV-1000 zenbakia esleitu zaio.

5.– Espainiako Metrologia Zentroak honako hauetan jasotakoari jarraituko dio une oro: uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretua, irailaren 25eko ITC/2845/2007 Agindua, azaroaren 26ko ITC/3123/2010 Agindua, azaroaren 22ko ITC/3707/2006 Agindua, 09/07/15eko Ebazpena eta 2007ko azaroaren 29ko Ebazpena, baita Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzak ezarriko duen beste edozein xedapen ere.


6.– Izendapen horrek bost urteko iraunaldia izango du, eta berritu ahal izango da. Horretarako, izendapena berritzeko eskabidea aurkeztu beharko da izendapena iraungi baino hiru hilabete lehenago.

7.– Izendatutako erakundearen jardunen ikuskapena, esku-hartzea eta kontrola egiteko eskumena Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari dagokio. Horretaz gain, baimena lortzeko arrazoi izan ziren baldintzen mantentzea egiaztatzeko ikuskapenak egin ahal izango dituzte.

8.– Aurkeztutako dokumentuetan egiaztatutako inguruabarretan ebazpen honen ondoren gertatutako edozein aldaketa Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta

c) Precinto de plástico:

Atzealdea
Reverso



XX corresponde a los dos dígitos finales del año en que se realiza la verificación.

3.– El Centro Español de Metrología, comunicará anualmente a esta Dirección las tarifas que establezca para los ensayos que se autorizan.

4.– A efectos del registro de organismos autorizados de la CAPV, se asigna el N.º 01-OV-1000 al Centro Español de Metrología.

5.– La entidad Centro Español de Metrología estará sometida en todo momento con lo que disponen el Real Decreto 889/2006, de 21 de julio, Orden ITC/2845/2007, de 25 de septiembre, Orden ITC/3123/2010, de 26 de noviembre, Orden ITC/3707/2006, de 22 de noviembre, Resolución de 15/07/09 y la Resolución de 29 de noviembre de 2007, así como también cualquier otra disposición que establezca la Dirección de Administración y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

6.– Esta designación tendrá un plazo de validez de cinco años renovables previa presentación, tres meses antes de la caducidad de la misma, de una solicitud de renovación de la designación.

7.– La competencia para efectuar la inspección, intervención y control de las actuaciones realizadas por el organismo designado corresponde a la Dirección de Administración y Seguridad Industrial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. Además, podrán realizar inspecciones para comprobar el mantenimiento de los requisitos que dieron origen a esta autorización.

8.– Cualquier modificación o cambio en las circunstancias acreditadas en los documentos presentados sobrevenidos con posterioridad a la presente Resolución deberán ser notificados a la Dirección de

hark baimena berretsi edo, hala badagokio, baliogabetu ahal izango du.

9.– Nolanahi ere, kontrol metrologikopeko neurketa-tresnak fabrikatzeko, merkaturatzeko eta konpontzeko jarduerekiko (zerbitzu-prestazioa barne) bateraezintasuna eta independentzia izango da.

10.– Indarrean dagoen legerian aurreikusitako arrazoiez gain, honako arrazoi hauek dakarte dagokion baimena baliogabetzea: baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea eta baimena eman zeneko inguruabarrak asko aldatzea.

11.– Urtero, lehen hiruhilekoan zehar, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari memoria bat bidaliko dio egindako jardueren eta gertatutako gorabeheren berri emanez.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 3a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.

Administración y Seguridad Industrial, que ratificará la autorización o podrá cancelarla en su caso.

9.– En cualquier caso, existirá incompatibilidad e independencia con las actividades de fabricación, comercialización y reparación de instrumentos de medida sometidos a control metrológico, incluyendo la prestación de servicios.

10.– Son causas de cancelación de la presente autorización, además de los previstos en la legislación vigente, el incumplimiento de las prescripciones establecidas en la misma, así como la variación sustancial de las circunstancias en que ha sido otorgada.

11.– Anualmente y durante el primer trimestre del año, el Organismo autorizado de verificación Metrológica remitirá a la Dirección de Admón. y Seguridad Industrial una memoria en la que consten las actividades realizadas y las incidencias que se hayan producido.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2011.

La Directora de Administración y Seguridad Industrial,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.